

LANGILE LAN-KONTRATUDUNEN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU SOZIETATE PUBLIKORAKO ADMINISTRAZIO-TEKNIKARIAREN LANPOSTURAKO

LEHENENGO OINARRIA.- DEIALDIAREN XEDEA

Oinarri hauen xedea da administrazio-teknikariaren lanpostua beteko duen pertsona bat hautatzeko prozedura arautzea, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioaren berezko bitartekoa den Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU (GHK) sozietate publikoaren zerbitzura dagoen langile lan-kontratadun gisa.

Lanpostu horretarako hautagaia aukeratzeko, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak, publizitatea eta lehia hartuko dira kontuan.

Lanpostua ingurumen-arduradunaren mende egongo da.

Lanpostuaren ezaugarriak eta baldintzak honako hauek dira:

EZAUGARRIEN ETA BALDINTZEN TAULA	
IZENA: DENOMINACIÓN:	Administrazio-teknikaria Técnico Administrativo
KATEGORIA/CATEGORÍA:	A-2
TITULU-BALDINTZAK: REQUISITOS DE TITULACIÓN:	Ingurumen-ingeniaritzako edo ingeniari-tza kimikoko erdi-mailako titulua edo antzekoa Titulación media en ingeniería ambiental o química o similar
ESPERIENTZIA: EXPERIENCIA:	5 urte antzeko lanetan 5 años en trabajos similares
HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EDO PAREKOA: EXPERIENCIA DEL PERFIL LINGÜÍSTICO/ASIMILABLE:	HE-2 / PL-2
SOLDATA GORDINAREN ORDAINSARIA: RETRIBUCIÓN SALARIAL BRUTA:	40.000 €/urtea 40.000 €/año
LANPOSTUA BETETZEKO MODUA: FORMA DE PROVISIÓN DEL PUESTO:	Oposizio-lehiaketa / Concurso Oposición

Honako hauek dira bete beharreko eginkizunak:

- Gestio-sistema integratuen (ISO 9001/14001) jarraipena egitea eta mantentzea, GHKn nahiz Kontsorzioan (GIG-2). Horrenbestez, ingurumenaren eta kalitatearen arloko adierazleekin eta alderdiekin lotutako informazioa tratatuko du, auditoretzei erantzun ahal izateko.
- Hondakinei buruzko dokumentazioa sortzea, erakunde publikoentzat nahiz deskargatzera joaten diren partikularrentzat.
- Hondakinei buruzko dokumentazioaren jarraipena egitea.
- Jarraipena egitea eta instalazio bakoitzeko operadore bakoitzak dagokion dokumentazioa osatzen duela egiaztatzea.
- Ekoizleen eta operadoreen dokumentazioa eta ingurumen-arloko mota guztietako agiriak kudeatzea.
- Datu-orriak betetzea karakterizazioen emaitzekin eta/edo analisisen emaitzekin.
- Astero, Ministerioan beharrezkoak diren instalazioen SANDACH jakinarazpenak egitea eta horien jarraipena egitea.
- Esir plataforman (Ministerioa) izapideak egitea.
- Mota guztietako ingurumen-kontrolak egitea edo horretan laguntzea: laginak hartzea, laginketa-puntuak egiaztatzea, erreaktiboak deskargatzea, etab.
- Instalazioen kontrola eta jarraipena.

Horretarako eskatzen diren gaitasunak honako hauek dira:

- Pertsona antolatua eta perfekzionista izatea.
- Dokumentu eta fitxategi ugari kudeatzeko zehaztasuna eta doitasuna.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Erabakiak hartzeko irizpidea.

Kontratazioa lan-kontratu mugagabearen modalitatean egingo da, Langileen Estatutuaren 15. artikulua xedatutakoaren arabera, gehienez ere 6 hilabeteko probaldian. Probaldia gainditzeko, hierarkikoki gorago dagoenaren aldeko txostena beharko da.

Deialdi honi Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 52, 53, 54 eta 55. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaio.

Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, prentsan eta sozietatearen webgunean (www.ghk.eus) argitaratuko da.

Hautaketa-prozesua langileak hautatzeko lanetan aditua den kanpoko enpresa baten laguntzarekin egingo da.

BIGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

A) Baldintza orokorrak

a) Nazionalitatea: Europar Batasuneko estaturen bateko nazionalitatea izatea edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen bat aplikatzearen ondorioz langileen zirkulazio askea aplikagarri zaion estaturen batekoa izatea.

b) Adina: Hamasei urte beteta izatea eta derrigorrez erretiratzeko gehieneko adina ez gainditzea.

c) Titulazioa: Erdi-mailako edo goi-mailako titulazioa izatea ingurumen-ingeniaritzan, kimikan, kimika-zientzietako lizentzian edo antzekoetan.

d) Gaitasun funtzionala: Dagozkion eginkizunekin bateraezina den gaixotasun edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

e) Gaikuntza: Diziplina-espediente baten bidez edozein herri-administrazioaren zerbitzutik edo autonomia-erkidegoetako eraketa- zein estatutu-organoetatik bereizita ez egotea, edota ebazpen judizial baten bidez enplegu edo kargu publikoak betetzeko desgaiakuntza berezi edo absoluturik ez izatea. Beste estatu bateko nazionala izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikora iristea eragozten duen diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.

Baldintza orokor guztiak baztertzaileak dira.

B) Berariazko baldintzak

Baztertzaileak:

- a) Ingurumenarekin eta/edo kalitatearen kontrolarekin lotutako lanetan gutxienez 5 urteko esperientzia izatea erdi-mailako edo goi-mailako teknikari lanpostuan.
- b) B-1 gidabaimena.
- c) Euskara: 2. hizkuntza-eskakizunaren (2HE) pareko ezagutzak, indarrean dauden ziurtagirierekin egiaztatuak.

Ez baztertzaileak:

- a) Esperientzia kalitate- eta ingurumen-ziurtagirien kudeaketan.
- b) Esperientzia datu-baseen kudeaketan.
- c) Esperientzia laginak hartzen eta horien analisi kimikoan.
- d) Lanpostuak eskatzen dituen eremuekin lotutako prestakuntza osagarria.
- e) Ingelesa jakitea.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA

A) Dokumentazioa:

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko, interesdunek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

1.- Eskaeraren inprimakia, dokumentu honi erantsitako ereduaren arabera (1. eranskina), behar bezala beteta. Bertan, prozesuan parte hartzeko borondatea adieraziko dute, baita oinarrietan eskatzen diren prozesuan parte hartu ahal izateko baldintza guztiak betetzen dituztela ere.

2.- Nortasun-agiri nazionalaren edo antzeko agiriaren, unibertsitate-titulazioaren eta gidabaimenaren fotokopiak.

3.- Interesdunaren Curriculum Vitaea (CV). CVak ondo bereizitako atal hauek izango ditu gutxienez: lan-bizitzaren bidez egiaztatu beharreko lanbide-merezimenduak (orain arte betetako lanpostuak) eta, hala badagokio, enpresa- eta prestakuntza-merezimenduak (titulu akademikoak eta egindako ikasketak). Horien kopia jarraian zehazten den moduan aurkeztu beharko da.

4.- CVan zehaztutako merezimenduak egiaztatzen dituzten frogagirien fotokopiak. Frogagiri horiek CVan zehaztutako hurrenkeraren arabera zenbakituko dira.

Edozein unetan, eskaeran zehaztutako baldintzak betetzen dituztela frogatzen duten jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkezteko eskatu diezaieke epaimahaiak hautagaiei; hala badagokio, hautatutako hautagaia kontratatu baino lehen egin beharko da.

B) Eskaera aurkezteko lekua eta epea:

Eskaerak, gainerako dokumentazioarekin batera, GHK SAU sozietateko presidenteari zuzendu beharko zaizkio, 1. eranskinean xedatutako ereduaren arabera, eta deialdiaren erreferentzia adierazita. Eskaerak elektronikoki, bertaratuta edo posta ziurtatu bidez aurkeztu ahal izango dira (azken horren kasuan, bidaltze-data zehatz-mehatz adierazi beharko da) GHK SAUko Erregistro Orokorrean (Gorostutza 2-1 20160, Donostia), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, eta bertan behar bezala erregistratuko da.

Eskaerak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Prentsako iragarkietan argi eta garbi adieraziko da GAO n zein egunetan argitaratu den.

LAUGARREN OINARRIA.- ESKAERAK EGIAZTATZEA

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, zuzendu daitezkeen akatsak zuzentzeko izapidea egingo da, eta horretarako epe bat emango da.

Ez dira onartuko eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak, eta horiek zergatik baztertu diren arrazoitu beharko da.

Onartutako eta baztertutako hautagaien zerrenda (nortasun-agiri nazionalaren azken lau zenbakiak eta letra) GHKren webgunean argitaratuko da.

BOSGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA-PROZEDURA

Hautaketa-prozedurak honako fase hauek izango ditu:

1. FASEA.- OPOSIZIO FASEA: GAITASUN ETA ESKUMEN PERTSONAL ZEIN PROFESIONALEN AZTERKETA.

Lanposturako eskatzen diren gaitasun eta eskumenen balorazioa egingo da.

Oposizio-prozesuan honako proba hauek egingo dira, eta jarraian adierazitako moduan baloratuko dira:

1: Gaitasunen eta/edo ezagutzen azterketa: 30 puntu gehienez.

Bete beharreko lanpostuaren xedearekin, eginkizunekin eta baldintzekin lotutako gaitasunen proba eta/edo proba teoriko-praktiko batzuk egingo dira.

LEHENENGO OINARRIAN ADIERAZITAKO LANPOSTUAREN EGINKIZUNEKIN LOTUTAKO EZAGUTZEN AZTERKETA	
Proba profesionala	15 puntu
GAITASUNEN AZTERKETA	
Arrazoitzeko gaitasuna	5 puntu
Antolatzekeo gaitasuna	5 puntu
Xehetasunez orientatzeko gaitasuna	5 puntu
GUZTIRA	30 puntu

Gehienez 30 puntu emango dira, eta gutxienez 15 puntu lortu beharko dira.

2: Elkarrizketa eta analisi pertsonala: 40 puntu gehienez.

Hautagaien elkarrizketa eta/edo bestelako proba pertsonalak eta/edo taldekoak egingo zaizkie, lanpostuaren profila betetzen duten hautagaiak egokiak direla eta eskumenak badituztela baloratzeko.

Besteak beste, honako ezaugarri eta eskumen hauek baloratuko dira, lanpostuak eskatzen duen intentsitatea kontuan hartuta:

- Ingurunea: ikuspegia eta aurrea hartzea, bezeroarekiko orientazioa, irekitasuna, identifikazioa eta enpresarekiko konpromisoa.
- Lanak garatzea: ekimena, emaitzetarako orientazioa, aukera zehatzak eta berritzaileak aztertzekeo eta proposatzeko gaitasuna, erabakitzekeo gaitasuna, erabakiak hartzea.

- Pertsonen arteko gaitasuna: komunikatzeko eta entzuteko, harremanetarako eta taldean lan egiteko gaitasuna.
- Pertsonala: autokontrola, konfiantza, segurtasuna, dinamismoa, ezbeharrei aurre egiteko gaitasuna.
- Kudeaketa: plangintza eta antolaketa, lidergoa, pertsonen kudeaketa.

ELKARRIZKETA PERTSONALA	30 puntu
NORTASUNAREN AZTERKETA (TESTA)	10 puntu
GUZTIRA	40 puntu

Gehienez 40 puntu emango dira, eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dira.

2. FASEA: LEHIAKETA FASEA. EGIAZTATUTAKO PRESTAKUNTZA-MEREZIMENDU ETA MEREZIMENDU PROFESIOALEN BALORAZIOA.

Oposizio-fasea gainditzen duten hautagaiak lehiaketa-fasean sartuko dira. Bertan, langileen hautaketa-lanetan espezializatutako kanpoko enpresa batek merezimendu hauek baloratuko ditu: prestakuntza osagarria eta lan-esperientzia.

1.- Prestakuntza osagarria: 10 puntu gehienez.

Deialdian zehatutako lanpostuarekin zuzenean lotuta dauden ikasketak, ikastaroak, tituluak edo diplomak baloratuko dira, bakoitzaren iraupenaren eta edukiaren arabera. Balorazioa 10 puntukoa izango da gehienez.

Deitutako lanpostuaren xedearekin lotuta dauden arloetako prestakuntza osagarria 10 punturekin baloratuko da, baremo honen arabera:

- 1-50 orduko iraupena: 0,5 puntu titulu bakoitzeko.
- 51-200 orduko iraupena: puntu 1 titulu bakoitzeko.

- 201-300 orduko iraupena: 2 puntu titulu bakoitzeko.

- 300 ordu baino gehiago: 3 puntu titulu bakoitzeko.

10 puntu gehienez.

2.- Lan-esperientzia antzeko lanpostuetan: 20 puntu gehienez.

Lehenengo oinarrian (hautaketa-prozesuan parte hartzeko ezaugarrien eta baldintzen taula) eskatzen diren 5 urteak baino esperientzia handiagoa egiaztatzen bada, 20 puntu lortu ahal izango dira gehienez.

Lanposturako garrantzitsua den esperientziaren iraupena bakarrik baloratuko da, eta honela puntuatuko da:

Lan egindako sei hileko bakoitzeko: 2 puntu.

Sei hilekoen zatiak gora edo behera biribilduko dira, irizpide honen arabera: 3 hilabete + egun 1, edo 3 hilabete - egun 1.

Balorazioa egiteko, lan-bizitza eta, hala badagokio, betetzen diren lanpostuak eta horien zeregina egiaztatzen dituzten ziurtagiriak behar dira.

Epaimahaiak baloratuko du esperientziaren egokitasuna eta prestakuntzaren edukiak baloratzea, lanposturako izan dezaketen onuraren arabera.

SEIGARREN OINARRIA.- EPAIMAHAIAREN OSAERA

Probak egiteko eta puntu gehien lortu dituen hautagaia izendatzeko proposamena egiteko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaiak kide hauek izango ditu:

- Epaimahaiburua: sozietateko zuzendari nagusia
- Epaimahaikidea: sozietateko administrazio- eta finantza-zuzendaria
- Epaimahaikidea: sozietateko ingurumen-arduraduna
- Idazkaria: sozietateko idazkaria

Epaimahaikideren bat bertaraten ez bada, zuzendari nagusiak izendatuko du haren ordezkoa. Nolanahi ere, epaimahaiburuak, idazkariak eta gutxienez epaimahaikide batek osatu beharko dute epaimahaia.

ZAZPIGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIA AUKERATZEA

Hautaketa-probak amaitu ondoren, epaimahaiak puntu gehien lortu dituen hautagaiaren aldeko kontratazio-proposamena egingo dio GHKren Administrazio Kontseiluari, proba bakoitzean lortutako puntuak batu ondoren.

Hautagaiaren hautaketa interesdunari jakinaraziko zaio, eta hark hamar egun naturaleko epea izango du dagokion oinarrian eskatzen diren hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzen egiaztatiriak aurkezteko:

- a) Dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten dion gaixotasun edo ezintasun fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duen agiria.
- b) Curriculum vitaean zehatutako prestakuntza akademikoa egiaztatzen duten titulu, ziurtagiri edo diplomen kopia egiaztatua.
- c) Lan-bizitzaren ziurtagiria, curriculum vitaean adierazitako esperientzia profesionala egiaztatzen duena.

Proposatutako hautagaiak ez badu eskatutako dokumentazioa aurkezten, GHK-k gai diren hurrengo hautagaiak kontratatu ahal izango ditu, prozeduraren azken puntuazioaren hurrenkerari jarraituz.

ZORTZIGARREN OINARRIA.- PROBALDIA

Lan-kontratuak sei hilabeteko probaldia izango du. Probaldian zehar, langileak aldi baterako ezintasun-egoera badu, edo amatasun, adopzio edo familia-harreragatik lanetik kanpo badago, epe hori ez da probaldi gisa zenbatuko.

Probaldia ebaluatu eta kalifikatu egingo da. Horretarako, honako irizpide hauek baloratuko dira:

- Zereginak eta betebeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasteko borondatea.
- Ekimena.
- Erantzukizuna eta egokitzapena.
- Lankidetzarako jarrera.
- Bezeroekiko eta laguntzaileekiko harremanak.

Ebaluazioa zerbitzuak ematen diren saileko zuzendari nagusiak edo bere ordez izendatutako pertsonak egingo du. Ebaluazioaren emaitza «Gai» edo «Ez gai» gisa kalifikatuko da, eta GHK SAUko presidenteari bidaliko zaio. «Ez gai» gisa kalifikatzen bada, hori ezarritako epea amaitu baino lehen bidali beharko da, Administrazio Kontseiluak dagokion erabakia har dezan.

Probaldia gainditzen ez bada, kontratuan atzera egingo da. Presazko kasuetan, kontratuan atzera egin ahal izango da zuzendari nagusiaren ebazpen arrazoitu baten bidez, eta Administrazio Kontseiluari ebazpen horren berri emango zaio egiten den lehenengo bilkuran.

BEDERATZIGARREN OINARRIA.- LAN-POLTSA

GHK-k lan-poltsa bat sortu ahal izango du, 1. fasea gainditu ondoren, hautatuak izan ez diren hautagaiekin.

Lan-poltsaren sorrera eta hura kudeatzeko oinarriak GHKren webgunean argitaratuko dira hautaketa-prozesua amaitu ondoren.

HAMARGARREN OINARRIA.- DATUEN BABESA

GHK sozietate publikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen duenarekin bat etorriz, hautagaiei jakinaraziko die, hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, edozein arrazoi dela-eta, GHKra bidaltzen dituzten datu pertsonal guztiak GHKren titulartasuneko fitxategi informatizatu batean gordeko direla (Gorostutza 2-1, 20160 Donostia), deitutako lanpostua betetzeko eta, hala badagokio, etorkizuneko kontratazioetarako hautagai-poltsa bat eratzeko.

Datu-tratamendu hori borondatezkoa da, eta, beraz, eskaera betetzean, GHK-k ulertuko du hautagaiek berariazko baimena ematen dutela beren datuak arestian adierazitako xedeetarako erabiltzeko. Hala ere, hautagaiek horri aurka egin eta baimena baliogabetu ahal izango dute edozein unetan; era berean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea izango dute, GHKri aipatutako helbidera idazki bat bidaliz, araudi aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan.

HAMAİKAGARREN OINARRIA.- GORABEHERAK

Epaimahaiak sortzen diren zalantzak ebazteko eta oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian hautaketa-prozesua behar bezala betetzeko erabakiak hartzeko eskubidea izango du.

Deialdia, oinarriak eta oinarri horietatik zein epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, indarrean dagoen legerian aurreikusitako epeetan eta moduan.